



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

LAN HARREMAN
ETA GIZARTE LANGINTZA
FAKULTATEA
FACULTAD
DE RELACIONES LABORALES
Y TRABAJO SOCIAL

LAN HARREMAN ETA GIZARTE LANGINTZA FAKULTATEA

Gratu Bikoitza: Negozioen Kudeaketa + Lan Harremanak eta Giza Baliabideak / Lan Harremanak eta Giza Baliabideak / Gizarte Langintza

www.ehu.eus

Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultatea



Gradu Bikoitza: Negozioen Kudeaketa + Lan Harreman eta Giza Baliabideak **_6. or.** / Lan Harremanak eta Giza Baliabideak **_8. or.** / Gizarte Langintza **_10. or.**

Eraiki al daiteke gizarte justuagoa eta lan sistema orekatuagoa?

Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultatean galdera horiei eta beste askori erantzuten saiatzen gara. Izan ere, lan harremanen, giza baliabideen eta gizarte langintzaren arloko profesionalen prestakuntzan EAEko erreferentziazko ikastegia izateaz gain, parte hartzen dugu gai soziolaboralen eta gizarte ongizatearekin lotutako gaien gainean hausnartu eta ikertzeko proiektu nahiz espazioetan. Genero ikuspegia eta ingurumenaren jasangarritasuna zeharkako gaiak dira gure tituluetan.



FAKULTATEA ZENBAKITAN

2+1
gradu gradu bikoitz

73
irakasle

3
master

22
profesional administrazio eta zerbitzuen arloan

3
berezko titulu

1100
ikasle



Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultatea

Leioako egoitza

Sarriena auzoa z/g. 48940 Leioa

Arabako Atala

Apraiztarren kalea, 2. 01006 Gasteiz

www.ehu.eus/eu/web/lan-harreman-gizarte-langintza-fakultatea

946 013 093

lh-gl.dekano-idazkaria@ehu.eus

945 013 317

direccion.euts@ehu.eus



[@upvehu](https://twitter.com/upvehu)



[@upvehu](https://www.facebook.com/upvehu)



[@upvehu_gara](https://www.instagram.com/upvehu_gara)



[UPV/EHU](https://www.linkedin.com/company/upvehu)



[UPV/EHU](https://www.youtube.com/channel/UC...)



[UPV/EHU](https://vimeo.com/upvehu)

GURE AZPIEGITURAK

Irakaskuntzarako guneak:

- Irakaskuntzarako gelak, erabilera anitzekoak
- Informatika gelak
- Laborategiak

Ikasleek erabiltzeko guneak:

- Informatika gelak
- Bakarka zein taldean ikasteko guneak

Beste gune batzuk:

- Jantokiak
- Kafetegiak



**Zure
talentua
garatzeko
leku onena.**



MUGIKORTASUN PROGRAMAK

SICUE
Espainiako Estatuko unibertsitateak

ERASMUS +
Europako unibertsitateak

Latinoamerika eta beste norako batzuk

- 2. mailatik aurrera
- Lauhileko edo ikasturte osoa



[Hemen](#) aurkituko duzu ikastegi honetako mugikortasun-programen informazio guztia.

IRAKASKUNTZA ELEANIZTUNA

Gradu guztiak:

Oinarrizko eta nahitaezko irakasgai guztiak euskaraz zein gaztelaniaz egin daitezke.

Gradu Amaierako Lana eta Practicum euskaraz zein gaztelaniaz egin daitezke.

UNIBERTSITATEKO PRAKTIKAK

Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Gradua:

- Borondatezko praktikak 3. eta 4. mailetan.
- Iraupena: 150-300 ordu.

Gizarte Langintzako Gradua:


- Nahitaezko praktikak 4. mailan.
- Iraupena: 320 ordu.

GRADU AMAIERAKO LANA

Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Gradua: 6 kreditu.

Gizarte Langintzako Gradua: 10 kreditu.

NON ESKAINTZEN DIRA GURE GRADUAK?



	Bizkaia	Araba
 Ikasleak	+22.000	+7.000
 Ikastegiak	9	7
 Bibliotekak	6	2
Campus guztiek dituzte:		
 Enplegu Zentroa	 Kiroldegi bat Itunpeko kirol zentroak	 Kultura, musika eta arte jarduerak
 Unibertsitate egoitza bat Ostatu zerbitzua: ostatua aurkitzen lagunduko dizugu	 Ikasi hizkuntzak Hizkuntza egiaztagiririk	

Bizi Bizkaiko eta Arabako Campusak!



Gratu Bikoitza

NEGOZIOEN KUDEAKETA + LAN HARREMAN ETA GIZA BALIABIDEAK



Jakintza adarra: **Gizarte eta Lege Zientziak**

Negozioen Kudeaketako eta Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Gradu Bikoitzak arlo ekonomikoan eta enpresen gestioan profesionalki aritu nahi duten eta horretarako bokazioa duten ikasleak ditu helburuko jasotzaile, bai eta lanaren munduan, lan harremanen eta giza baliabideen arloan ere.

Enplegu falta eta dagoen lanaren kalitate eskasa dira gaur egun gure gizartearen kezka nagusia. Aldi berean, enpresa gehien-gehienak txiki eta ertainak dira, aholkularitza eta gestio egoki eta ona behar dituztenak. Horregatik, gradu bikoitz honek erantzuna ematen dio behar honi: arlo juridiko eta ekonomikoan prestatutako eta gizartearen eta pertsonen premiekiko konpromiso handia agertuko duten profesionalen beharrari.

Bost ikasturte akademikotan zehar, gaitasun eta trebetasun ugari eskuratuko dituzu eta diziplina anitzeko prestakuntza osoa jasoko duzu helburu hauekin: enpresa eta lan munduaren ikuspegi zabal eta kualifikatua lortzeko, edozein enpresa zein antolakunde gestionatzeko gai izateko edo zeure enpresa proiektuari ekiteko, lan agertoki berriak ulertu, interpretatu eta bertan parte hartzeko gai izateko.

Baldin eta gaitasun analitikoak baduzu; antolatze eta plangintzak egiteko gai bazara; interesgarri baderitzezu ekonomiari, enpresei eta lan munduko gaiei, edozein eratakoak direla ere; inguruko gizarte, ekonomia, kultura eta politikaren errealitatearekiko sentibera eta konprometitua bazara, zeuretzat duzu Negozioen Kudeaketako eta Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Gradu Bikoitza.



[Hemen](#) aurkituko duzu gradu honi buruzko informazio zehatzagoa.

Titulazio bikoitz honek gaitasuna emango dizu...

Negozioen prozesu eta eragiketak ulertzeko, edozein eratakoa delarik ere; hauen guztien gestiorako tresnak aplikatzeko; merkatu globalizatuen testuinguruan, ekonomia eta enpresa errealitatearen markoa, elementuak eta harremanak ezagutzeko; bezeroak hartu, aholkuak eman eta beren ordezkarri jarduteko, lan harremanen eremu ezberdinetan behar bezala negoziatuz; gizarte jarrera informatua garatzeko, lan, gizarte eta enplegu arloan pertsonak eta kolektibo sozialek pairatzen duten bazterkeria, zapalkuntza eta gizarte zein kultur edo genero bazterketaren aurrean.

Irteera profesionalak:

Edozein tamainatako enpresetan eta administrazio publikoan, zeregin hauetan:

- Enpresen kudeaketa integrala.
- Ekonomia, finantza, zerga eta lan arloetako kudeaketa eta aholkularitza.
- Nazioarteko marketinaren eta merkataritza marketinaren kudeaketa.
- Giza baliabideen zuzendaritza eta kudeaketa.
- Finantza, kontabilitatea eta ikuskaritza zuzendaritza.
- Aholkularitza eta lan kudeaketa sindikatu edo enpresa batean gizarte gradudun moduan.
- Langile eta enpresen ordezkaritza judiziala.
- Lan sustapenerako eta laneratzeko estrategiak landu eta ezartzea.
- Lan arriskuen prebentzioa.
- Administrazio publikoa: ekonomia eta finantza gestioa, diruzaintza, lan ikuskaritza, laneko segurtasun eta osasuna eta abar.
- Irakaskuntza, unibertsitatean, bigarren hezkuntzan eta lanbide hezkuntzan.

Horrez gainera, tresnak eta jakintza nahikoak izango dituzu zeure enpresa proiektua martxan jartzeko.

* Gradu bikoitz hau Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultatean (Leioa-Erandio eremuan) eta Bilboko Ekonomia eta Enpresa Fakultatean (Elkano, Bilbon) irakasten da.

IKASKETA PLANA:

LEHENENGO MAILA 69 kreditu (oinarrizko 63 kreditu + nahitaezko 6 kreditu)

1. lauhilekoa

- Gizartearen eta Lan Harremanen Historia
- Zuzenbide Zibila
- Konstituzio Zuzenbidea
- Lan Arloko Soziologia
- Ekonomia I: Sarrera
- Matematika I

2. lauhilekoa

- Gizartearen eta Lan Harremanen Historia
- Administrazio Zuzenbidea
- Sozietateen Zuzenbidea
- Ekonomia II: Politika Ekonomikoak
- Estatistika I
- Matematika II

BIGARREN MAILA 75 kreditu (oinarrizko 39 kreditu + nahitaezko 36 kreditu)

1. lauhilekoa

- Lan Zuzenbidea
- Sindikatu Zuzenbidea
- Langileen Zuzendaritza eta Kudeaketa
- Lan Arloko Psikologia
- Kontabilitaterako Sarrera
- Merkataritza Zuzenbidea
- Kudeaketarako Informatika

2. lauhilekoa

- Lan Zuzenbidea
- Sindikatu Zuzenbidea
- Langileen Zuzendaritza eta Kudeaketa
- Erakundeen Soziologia
- Zerga Zuzenbidea eta Lan Arloko Zuzenbidea
- Marketinaren Oinarriak
- Finantza Kudeaketa

HIRUGARREN MAILA 72 kreditu (nahitaezko irakasgaiak)

1. lauhilekoa

- Gizarte Segurantzaren Zuzenbidea I
- Gizarte Ikerketarako Teknika Kualitatiboak
- Ekonomia III: Kontsumitzaileak, Enpresak eta Merkatuak
- Estatistika II
- Finantza Matematika
- Finantza Kontabilitatea

2. lauhilekoa

- Lan eta Gizarte Politikak
- Laneko Harremanen Teoria eta Egitura
- Negoziaziorako Teknikak
- Enpresen Kudeaketa I: Enpresa Ekonomia
- Sozietateen Kontabilitatea
- Nazioarteko Negozioak

LAUGARREN MAILA 72 kreditu (nahitaezko irakasgaiak)

1. lauhilekoa

- Laneko Osasuna eta Prebentzioa
- Gizarte Segurantzaren Zuzenbidea II
- Enpresen Kudeaketa II: Lanaren Antolakuntza eta Lan Metodoak
- Ekonomia eta Ogasun Sistema
- Marketineko Erabakiak
- Enpresarako Ingelesa I

2. lauhilekoa

- Laneko Osasuna eta Prebentzioa
- Ikasgelako Praktiak I
- Inbertsioen Análisis eta Hautapena
- Kostuen eta Kudeaketaren Kontabilitatea
- Enpresarako Frantsesa
- Enpresarako Ingelesa II

BOSGARREN MAILA 72 kreditu (nahitaezko irakasgaietan 36, hautazkoetan 18 eta GRALean 18)

1. lauhilekoa

- Lan Arloko Zuzenbide Prozesala
- Lan Ekonomia
- Auditoria Soziolaborala
- Munduko Ekonomia
- Enpresen Administrazioa
- Zerga Sistema

2. lauhilekoa

- Gradu Amaierako Lana (LH eta GB)
- Gradu Amaierako Lana (NR)
- Enpresetako praktikak

Gradu Amaierako Lana (Lan Harremanak eta Giza Baliabideak): 6 kreditu

Gradu Amaierako Lana (Negozioen Kudeaketa): 12 kreditu

Enpresetako Praktikak (Negozioen Kudeaketa): 18 kreditu

LAN HARREMAN ETA GIZA BALIABIDEETAKO GRADUA



Jakintza adarra: **Gizarte eta Lege Zientziak**

Lan mundua etengabe ari da aldatzen, eta, are gehiago duela gutxi bizi izan dugun krisiaren ostean: aldatu egiten dira lan harremanak, legeak eta enplegu politikak, baita lanaren antolakuntza eta lan merkatua ere. Horrela, bada, lan harremanen eta giza baliabideen arloa konplexua bezain interesgarria da, eta beti dabil oreka bilatu nahian eragileen artean (enplegatuak eta enplegu emaile diren erakundeak, sindikatuak, patronala, etab.).

Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Gradua diziplina anitzeko prestakuntza emango dizu lan egoera berriak ulertzeko, interpretatzeko eta horietan esku hartzeko. Ikasketa planean arlo hauen oinarri teoriko eta teknikoak lantzen dira: lanaren antolakuntza, langileen kudeaketa, lanaren eta Gizarte Segurantzaren antolakuntza juridikoa, lan merkatuko esku-hartzea, eta laneko arriskuen prebentzioa.

Honako aipamen edo ibilbide hauek izango dituzu espezializatzeko: Enpresari Aplikatutako Kudeaketa, Enpleguaren Kudeaketa eta Prestakuntza Duala.

Lan munduaren alderdi desberdinek erakartzen bazaitu, inguratzen zaituen errealitate sozial, ekonomiko, kultural eta politikoarekiko sentsibilitatea eta konpromisoa badituzu eta lan munduaren funtzionamendu egokian parte hartu nahi baduzu, Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Gradua da zure lekua.



[Hemen](#) aurkituko duzu gradu honi buruzko informazio zehatzagoa.

Titulazio honek gaitasuna emango dizu...

Bezeroei arreta, aholkularitza eta ordezkaritza eskaintzea, lan harremanen arloetan egoki negoziatzeko gaitasunez, eta, gainera, enpresa eta erakundeetako giza baliabideak kudeatzeko estrategiak egoki garatzea, kontrolatzea eta ebaluatzea, eta jarrera sozial bat barneratzea, informazioan oinarritutako sentsibilizazioa agertuko duena, enpleguaren eta lan eta gizartearen arloetan bazterketa, opresioa eta gizarte, kultura eta genero bazterkeria jasaten duten pertsonen eta gizarte kolektiboen aurrean.

Irteera profesionalak:

Nagusiki, honako arlo hauetan:

- Aholkularitza eta lan kudeaketa sindikatu edo enpresa batean gizarte gradudun moduan
- Langile eta enpresen ordezkaritza judiziala
- Giza baliabideen kudeaketa eta zuzendaritza: giza baliabideen arloko estrategiak erakundeetan, berdintasun planak, etengabeko prestakuntzako planak, etab.
- Lan sustapenerako eta laneratzeko estrategiak landu eta ezartzea
- Laneko arriskuen prebentzioa
- Administrazio publikoa: laneko ikuskatzaitetza, laneko segurtasuna eta osasuna, etab.
- Irakaskuntza, unibertsitatean, bigarren hezkuntzan eta lanbide heziketan

IKASKETA PLANA:

LEHENENGO MAILA 60 kreditu (oinarrizko irakasgaiak)

1. lauhilekoa

- Gizartearen eta Lan Harremanen Historia (urte osokoa)
- Konstituzio Zuzenbidea
- Lan Arloko Psikologia
- Lan Arloko Soziologia
- Lan Zuzenbidea (urte osokoa)
- Zuzenbide Zibila

2. lauhilekoa

- Administrazio Zuzenbidea
- Ekonomia Politikoa
- Sozietateen Zuzenbidea

BIGARREN MAILA 60 kreditu (nahitaezko irakasgaiak)

1. lauhilekoa

- Ekonomia eta Ogasun Sistema
- Gizarte Ikerketarako Teknika Kualitatiboak
- Gizarte Segurantzaren Zuzenbidea I
- Kontabilitaterako Sarrera
- Langileen Zuzendaritza eta Kudeaketa (urte osokoa)
- Sindikatu Zuzenbidea (urte osokoa)

2. lauhilekoa

- Enpresen Kudeaketa I: Enpresa Ekonomia
- Finantza Kontabilitatea
- Gizarte Ikerketarako Teknika Kuantitatiboak

HIRUGARREN MAILA 60 kreditu (nahitaezko irakasgaiak)

1. lauhilekoa

- Enpresen Kudeaketa II: Lanaren Antolakuntza eta Lan Metodoak
- Gizarte Segurantzaren Zuzenbidea II
- Lan Arloko Zuzenbide Prozesala
- Lan Ekonomia
- Laneko Osasuna eta Prebentzioa (urte osokoa)

2. lauhilekoa

- Ikasgelako Praktika I
- Lan eta Gizarte Politikak
- Laneko Harremanen Teoria eta Egitura
- Negoziaziorako Teknikak

LAUGARREN MAILA 60 kreditu (nahitaezko 48 kreditu + hautazko 6 kreditu + Gradu Amaierako Laneko 6 kreditu)

1. lauhilekoa

- Auditoria Soziolaborala

Hautazkoak

- Enpresaren Zerga Araubidea (1A)
- Finantza Egoeren Analisia (1A)
- Berdintasunerako Planak eta Negoziazio Kolektiboa (2A)
- Funtzio Publikoa (2A)
- Globalizazioa eta Lan Mundua (2A)
- Euskararen Arauak eta Erabilerak
- Prestakuntza Dualeko Ibilbidea I (I1)*

2. lauhilekoa

Hautazkoak

- Enpresen Kudeaketa III: Estrategia Zuzendaritza (1A)
- Ikasgelako Praktika II (1A)
- Nominen Kudeaketa (1A)
- Enplegurako Politika Aktiboak (2A)
- Laneko Arriskuen Prebentzioa Lanaren Antolakuntzan (2A)
- Sindikatuen Egungo Erronkak (2A)
- Komunikazioa Euskaraz: Ekonomia, Enpresa eta Lan Harremanak
- Prestakuntza Dualeko Ibilbidea II (I1) *

GRADU AMAIERAKO LANA**

* Hautazko hauek egin ahal izango dituzte soilik Prestakuntza Dualeko Ibilbidea egiteko aukeratu diren ikasleek. Ikasleak 1.226 orduko egonaldi bat egingo du enpresan, irakats aldian zehar; zehazki, enpresaren lan egutegiaren barnean arituko da enpresaren jardueretan, egunean 6 orduz.

Alternantziak aukera ematen du ikaslearen gaitasunak garatzeko, aintzat harturik profil profesionala eta inguruko enpresen premietara egokitzeko beharra. Hots, mesede egiten zaio ikaslearen irakaskuntza-ikaskuntza prozesuari, lagundu egiten zaiolako enpresako zereginetan eta jarraipen bat egiten delako tutore eskarmentudunen bitartez.

** Prestakuntza Dualeko Ibilbidea osatzeko, enpresan eginiko egonaldiari lotutako Gradu Amaierako Lana aurkeztu behar da.

AIPAMENAK

- Enpresari Aplikaturako Kudeaketa (1A)
- Enpleguaren Kudeaketa (2A)

IBILBIDEA

- Prestakuntza Duala (I1)

GIZARTE LANGINTZAKO GRADUA



Jakintza adarra: **Gizarte eta Lege Zientziak**

Baliabide falta, mendekotasuna, indarkeria, tratu txarrak, diskriminazioa...gure gizartean hainbatek pairatzen dituzten egoerak dira, zailtasun, behar eta arazo sozialak gainditzeko eta ongizatea eta justizia soziala lortzeko lan egiten duten profesionalen esku hartzea behar dutenak.

Gizarte langileak zuzenean eta modu integralean esku hartzen du pertsona horiekin eta horien familiarekin, taldeekin eta komunitateekin; laguntza eskaintzen die, baita gizarte zuzenbide eta baliabideei buruzko informazioa eta orientazioa eman ere. Bestalde, aktiboki hartzen du parte arazo sozialen salaketan eta ikerketan.

Gizarte Langintzako Graduak profesionalki gaitzen zaitu, lanbideari eta diziplinari lotutako ezagutza, abilezia eta trebetasunak eskuratuta.

Eta, gainera, espezializatzeko aukera izango duzu: Gatazketan Esku-hartzea eta Gatazken Eraldaketa eta Komunitate Sustapena aipamenetan.

Gizarte sentsibilitate handiko pertsona bazara, gizarte justuago eta berdinzaleago baten aldekoa, gizarte politikak interesatzen bazaizkizu eta pertsonen, taldeen eta komunitateen aldatzeko gaitasunean sinesten baduzu, zalantzarik gabe Gizarte Langintzako Graduan aurkituko duzu zure lekua.



[Hemen](#) aurkituko duzu gradu honi buruzko informazio zehatzagoa.

Titulazio honek gaitasuna emango dizu...

Gizarte langintzaren oinarri, metodologia, eredu eta teknikei buruzko ezagutzak eskuratu eta aplikatzeko, problema-egoerak aztertu eta pertsona, familia, talde eta komunitateekin egiten den gizarte langintza diagnostikatu, planifikatu, gauzatu eta ebaluatzeko xedez; gizarte baliabideak eta horien lege esparrua ezagutzeko, esku-hartze profesionalerako oinarrizko tresna diren aldetik; eta gizarte proiektu, programa, plan eta politikak diseinatzeko, ezartzeko eta ebaluatzeko.

Gradu hau bukatutakoan Gizarte Hezkuntzako eskuratzeko, 90 ECTS egin behar dira.

Irteera profesionalak:

Zerbitzu publikoetako (udalak, aldundiak...) edo pribatuetako (elkartek, GKE...), arlo desberdinetan:

- Gizarte ongizatea:
 - Oinarrizko gizarte zerbitzuak, larrialdiak, etxeko laguntza...
 - Gizarte zerbitzu bereziak (adineko pertsonen, emakumeen, haurrei, mendekotasun egoeran daudenei, etorkinei, etxerik gabeko pertsonen, eta abarri zuzendutakoak)
- Osasuna: lehen mailako arreta, ospitaleak, buruko osasuna, droga mendekotasuna
- Justizia: epaitegiak, espetxeak
- Hezkuntza, enplegua, etxebizitza
- Esku-hartzeko arlo berriak: familia eta komunitate bitartekaritza, berdintasuna, garapenerako lankidetzak, aholkularitza, adituen gizarte azterketa

IKASKETA PLANA

LEHENENGO MAILA 60 kreditu (oinarrizko 36 kreditu + nahitaezko 24 kreditu)

1. lauhilekoa

- Antropologia eta Gizarte Langintza
- Gizarte Errealitateen Behatokia
- Gizarte Langintzarako Psikologia
- Gizarte Langintzaren Oinarriak eta Metodologia
- Soziologia eta Gizarte Langintza

2. lauhilekoa

- Filosofia eta Gizarte Langintza
 - Gizarte Langintzarako Ekonomia
 - Gizarte Langintzarako Gizarte eta Komunikazio Trebetasunak
 - Gizarte Zerbitzuen Oinarriak
 - Herritarrak eta Administrazio Publikoa
-

BIGARREN MAILA 60 kreditu (oinarrizko 24 kreditu + nahitaezko 36 kreditu)

1. lauhilekoa

- Banakako eta Familiako Gizarte Langintza
- Esku-hartzeko Teknikak Gizarte Langintzan
- Gizarte Ikerketarako Metodologia Kuantitatiboa
- Justizia Administrazioa eta Gizarte Langintza
- Komunitaterako Gizarte Zerbitzuak

2. lauhilekoa

- Gizarte Baliabideen Behatokia
 - Gizarte Egitura eta Estratifikazioa
 - Gizarte Langintzarako Gizarte Psikologia
 - Gizarte Ongizateko Erakundeen Kudeaketa eta Antolakuntza
 - Taldeko Gizarte Langintza
-

HIRUGARREN MAILA 60 kreditu (nahitaezko 36 kreditu + hautazko 24 kreditu)

1. lauhilekoa

- Gizarte Ikerketarako Metodologia Kualitatiboa
- Gizarte Zerbitzu Espezializatuak
- Komunitaterako Gizarte Langintza

2. lauhilekoa

- Gizarte Politika
- Gizarte Proiektuen Diseinua eta Ebaluazioa
- Jardute Profesionalerako Sarrera

Hautazkoak

- Bake Kultura (1A)
- Gatazken Eraldaketarako Trebetasunak (1A)
- Gatazken Teoria eta Analisia (1A)
- Genero Berdintasuna (2A)
- Gizarte Partaidetza eta Komunitate Garapena (2A)
- Euskararen Arauak eta Erabilerak

Hautazkoak

- (Emakumeen Aurkako Indarkeria: Prebentzioa eta Esku-hartzea (1A)
 - Gatazken Eraldaketarako Metodoak eta Teknikak (1A)
 - Babes Juridikoa Zaurgarritasun Egoeretan (2A)
 - Baztertze eta Gizarteratze Mekanismo eta Prozesuak (2A)
 - Komunitate Prebentzioa (2A)
-

LAUGARREN MAILA 60 kreditu (nahitaezko 38 kreditu + hautazko 12 kreditu + Gradu Amaierako Laneko 10 kreditu)

1. lauhilekoa

- Hezkuntza Gainbegiratzea eta Etika Profesionala (urte osokoa)
- Kanpoko praktikak: Practicum (urte osokoa)

2. lauhilekoa

- Hezkuntza Gainbegiratzea eta Etika Profesionala (urte osokoa)
- Kanpoko praktikak: Practicum (urte osokoa)

Hautazkoak

- Bitartekaritza eta Gizarte Langintza (urte osokoa) (1A)
- Gizarte eta Komunitate Animazioa (urte osokoa) (2A)
- Komunikazioa Euskaraz: Giza eta Gizarte Zientziak

Hautazkoak

- Bitartekaritza eta Gizarte Langintza (urte osokoa) (1A)
- Gizarte eta Komunitate Animazioa (urte osokoa) (2A)

GRADU AMAIERAKO LANA

AIPAMENAK

- Gatazketan Esku-hartzea eta Gatazken Eraldaketa (1A)
- Komunitate Sustapena (2A)



UPV/EHUren GRADUONDOKOEN ESKAINZA

Zure gradu-ikasketak amaitu ondoren, zure prestakuntza osatu ahal izango duzu graduondoko batekin. UPV/EHUK graduondoko 150 programa baino gehiago eskaintzen ditu zure etorkizun profesionala garatu nahi duzun alorrean espezializatu zaitez.



Gure unibertsitateko masterrak eta berezko tituluak hemen kontsulta ditzakezu:
www.ehu.es/eu/web/estudiosdeposgrado-graduondokoikasketak

Eskerrik asko Euskal Herriko Unibertsitatea aukeratzeagatik. Itxaroten dizugu.

Liburuxka hau informazioa emateko baino ez da.
Azken eguneraketa: 2022ko abendua.